

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak abuztuko nominan aplikatuko du ordainsarrietan egin beharreko % 1,5eko igoera

Langile guztiek % 0,25eko igoera osagarria jasoko dute, eta batzuek % 0,30 gehiagokoa

Asteazkena, 2018.eko uztailak 25

Justiziako kontseilari José Beaumonten proposamenez, Nafarroako Administrazio eta honen erakunde autonomoetako langileek 2018rako ezarriak dituzten ordainsariei % 1,5eko igoera aplikatzea, 2018eko urtarrilaren 1etik aurrerako balioa duena, eta horren zenbatekoa abuztuko nominan ordaintzea.

Era berean, luze gabe, Nafarroako Gobernuak 2018ko uztailaren 1az geroko balioa izango duen % 0,25eko igoera osagarria onartuko du langile guzti-guztientzat, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean baimendutakoaren harira.

Nafarroako Gobernuak ezarrita utzi zuen Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 20/2017 Foru Legean, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariei, Estatuko legeak sektore publikoaren zerbitzuko langileei ezarritako gehienezko soldata-igoera aplikatuko zitzaizela

Estatuko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18. artikuluko bigarren atalean zehaztuenez, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariei ezarritako igoera osoak ezin du gainditu 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien % 1,5a.

17.325.000 euro % 1,5eko igoera ordaintzeko

Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuan diharduten langileen ordainsarien ehuneko 1,5eko balioa kalkulatu zuen 17.325.000 euroko kopurua esleitu zen horretarako.

Uztailaren 3ko 6/2018 Legean, halaber, argi jasota geratu zen, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera ehuneko 3,1ekoa baldin bazen (2017eko prezio konstanteetan neurtuta), 2018ko uztailaren 1az geroko balioa duen ehuneko 0,25eko beste soldata-igoera bat gaineratuko zela.

Helburu hori beteenez, Ministroen Kontseiluak aparteko igoera hori baimentzen duen erabakia onartu eta igorri dio Nafarroako Gobernuari, ondorengo bileretan % 0,25eko aparteko igoera hori egiteko erabakia hartu ahal dezan.

Aparteko % 0,30 kasu jakin batzuetarako

Gainera, Estatuko legean ezarri denez, soldata-masaren % 0,20 igoera gehigarria baimendu ahalko da 2017an superabita izan duten autonomia-erkidegoetan -Nafarroan, kasu- produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko planak eta proiektuak hedatzeko, antzeko betekizunak dituzten lanpostuen berariazko osagarriak berrikusteko, destinoko osagarriak homologatzeko edo pentsio-planetarako ekarpenak egiteko.

% 0,30eko igoera hau Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean negoziatu beharko da aurretik, eta horretako, lan-taldea osatu dute Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren eta sindikatuen ordezkariak, irailaren 11rako aurreikusita dagoen lehenengo bilera prestatzeko.